

APDK antolatutako jardunaldia, eraldaketa digitalari buruz

"EROSKI Club sendotu den honetan, Bezero Bazkideentzako abantaila berrietan pentsatzeko moduan gara", Imanol Torres, EROSKI Cluben Proiektuetarako zuzendaria

- Balioaren proposamena, pribatutasuna eta pertsonalizazioa funtsezko printzipioak dira EROSKI k bere Bezero Bazkideekin duen harremanean
- Arlo multikanalaren alde egiten ari denetik, igo egin dira *Click & Drive* eta *Click & Collect* bilketa guneen on line salmentak, %60 azken urtean
- Orain berriki, Espainiako on line supermerkatuak onena dela aitortu diote EROSKIri, kontsumitzaileen bozketa batean

Bilbo, 2017ko urriaren 4a.- [EROSKI](#) k gaur [The New Normal. Historias detrás de la estrategia digital](#) izeneko jardunaldietan parte hartu du. [Asociación para el Progreso de la Dirección](#) izeneko elkarte batek antolatzen ditu, eraldaketa digitalean ari diren enpresen esperientziak ezagutarazteko, gaur egungo bizimodua gero eta globalagoa, komunikatuagoa eta multikanalagoa denez gero.

EROSKI Cluben Proiektuetarako zuzendari Imanol Torresek azaldu du zer-nolako aurrerapenak egiten ari den kooperatiba eraldaketa digitalaren estrategian lehiakortasuna hobetzeko eta kontsumitzaileari bere gogoaren arabera proposamena egiteko, baita irtenbide berritzaileen bitartez ere.

Dienez, eraldaketa digitala ardatz estrategiko bat da EROSKIrentzat, kontsumitzaileak dagoeneko egina baitu bere "bidai digitala": *"EROSKI n, abantaila lehiakor eta iraunkorrak eratzten ari gara EROSKI Club plataformaren bidez; izan ere, kluba sendotu den honetan, Bezero Bazkideentzako abantaila berrietan pentsatzeko moduan gara. Teknologiari esker, era desberdinean komunika gaitzke elkarrekin, eta bezeroaren esperientzia era integralean kudea dezakegu, zatikatu gabe, erosketa prozesua kanal guztiak gurutzatzen dituen errealitate gisa ikusirik"*.

EROSKI Clubaren Proiektuetarako zuzendariak azalpenak eman ditu EROSKI k azken hilabeteetan dagoeneko gauzatu dituen proiektu batzuen inguruan; adibidez, bezeroaren esperientziaren diseinu berria on line supermerkatuan erosteko orduan. Hobekuntza horiek ['WebShop' saria](#) irabazi dute aurten on line supermerkatuen kategorian, botoa erabiltzaileek berek emanda. Sariketa hori da Espainian kontsumitzaileei buruz dagoen handiena. Hitzaldian, halaber, esan du bezeroek harrera bikaina egin dietela alternatiba berriei, on line eskariak hartzeko erosoagoak eta merkeagoak direlako. EROSKI k urteak daramatza *Click & Drive* zerbitzua ematen, erosketa autotik atera gabe jasotzeko, eta *Click & Collect*,

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

dendan bertan jasotzeko. Eta zerbitzu horiek erakusten dute on line salmentek gora egin dutela bilketa guneak dauden lekuetan, %60 azken urtean.

Imanol Torresek esan du EROSKI beti ari dela nola hobetu balioaren proposamena, pribatutasuna eta pertsonalizazioa, horiek baitira funtsezko printzipioak Bezero Bazkideenganako harremanean. Sakelakoetarako duen aplikazioa da horren guztiaren adibidea: berri egin duenez geroztik, erabiltzaileak pertsonalizatu egin dezake eta dendan identifikatu egin daiteke bere sakelakoaren bidez, eta gero eta zabalkunde handiagoa hartzen ari da modu naturalean, hileroko %7 handitzen ari da eta haren erabilera.

Bezero Bazkideentzako abantaila berriak

EROSKI Cluben Proiektuetarako zuzendariak esan duenez, orain dela lau urte EROSKI Club ateratzearekin, kooperatibak Bezero Bazkideekiko estrategia berria diseinatu zuen eta eraldaketa digitalaren bidean jarri: "*Gaur egun aukera ematen digu gure bezeroak nor diren askoz ere hobeto jakiteko eta haiekin modu askiesgarriagoan erlazionatzeko*". Eta gogorarazi du hau hasi besterik ez dela egin: "*Teknologia berriak banaketaren balio kateko zenbait alderdi eraldatzen ari dira, eta abantaila lehiakor berriak eratzea erronka bihurtu da enpresentzat, zeinek, askotan beren mugetatik kanpo dagoenez, barne jakintza kanpo jakintzarekin konbinatu behar izaten baitute*". Alde horretatik, EROSKIk gogorarazi du martxan duela unibertsitatearen eta enpresaren arteko talentu transferentziarako plana. Eta hitzarmen bat egin du Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultatearekin, kooperatibako profesionalen gaitasunak lantzeko eta bezeroarentzako belaunaldi berriko konponbideak sorrarazteko, datu bolumen handien prozesamendua erabilita.

Unibertsitatearen eta enpresaren arteko plan horretan bertan, halaber, EROSKIk eta MONDRAGON UNIBERTSITATEAK lankidetzan hitzarmen bat egin dute profesional berriak hartzeko eta bi erakundeen artean talentua transferitzeko, nola eta etengabeko prestakuntza programekin, jakintza teknikoaren transferentziarekin eta ekosistema berri baten sorkuntzarekin EROSKIren barnean ekintzailtzeko proiektu berriak gauzatzeko.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)